

KIROLA

Bermeon Erabaki prozesuaren baitan 3 saio hartu ditugu kirolaren gaia lantzeko. Lehen bileran 7 pertsona bildu ginen, bigarrenetan 20 eta hirugarrenetan berriz 6. Hiru saio hauetan zehar kirolaren gaia lantzeko pausu ezberdinak eman ditugu: lehenik eta behin guztion artean eraiki dugu herriko egoeraren inguruko diagnosia, pertsona bakoitzak bere alorreko ekarpenak egin dituelarik. Ondoren, diagnosian gehiago sakondu eta proposamenak egiteko unea ere ireki dugu.

Esku artean dugun hau, saio guztietan landu dugunaren ondorio moduan aurkezten dugu, herritar eta Udalaren arteko elkarlanaren ondorio delarik.

Kirolaren gaia azpigai ezberdinen arabera landu dugunez, ondorengo orrietan azpigai hauen arabera egindako ekarpenak jasotzen ditugu.

KIROL JARDUERAK:

- Kirol jarduerak herritar guztiei zuzenduak izan behar dira: andra, gizon, ume, gaztetxo, gazte,... Elkarte batzuk badabiltza lan honetan, beste batzuk hasteko asmoagaz.
- Zelan zabaldu daiteke herrian kirol jardueren berri?
 - o Ate irekien eguna: ondo dago baina egun bakarrean geratzen da.
 - o Erakustaldiak: Talde kirolen torneoak antolatu: saski baloia, esku baloia...
 - o Afitxeak hormatan
 - o Ahoz ahokoa
- Hainbat jarduera egiten dira: ziklokrosa, bizikleta bidean, ligakoak eta txapelketak,...
- Jarduera federatuez gain beste hainbat dagoz modu isolatuan, jarraipena beharko luketenak. Urtean behineko jarraipena bakarrik egin beharrean, maiztasun handiagoarekin egiteko aukera planteatu beharra dago, trimestero...
- Kirol "txiki" edo minoritarioagoak direnak promozio handiagoa beharko lukete.
- Kirol batzuk beste batzuk baino askoz gehiago ezagutzen dira. Kirol mota batzuk ez dira kontuan hartzen.
- Zelan egin kirol hauen zabalpena egiteko? Zabalpena egiteko proposamen batzuk honakoak izan daitezke:
 - Kirol taldekoak (kirolariek) eskoletatik pasa, promozioa egiten. Kirolari hauek herrikoak zein kanpokoak izan daitezke, eta erakustaldi

antzerako zerbait egin dezakete eskoletako ume eta gazteekin.

- Egiten den promozioagaz lortu ahal diren pertsona berri guztientzat erantzuteko gaitasuna izan behar da, hau da, taldera badatoz baliabideak eduki beharko ditu taldeak jende berri honi erantzuteko, bai pertsonalak eta baita materialak ere.

KIROL EKIPAMENDUAK:

- Kirol ekipamenduak hobetu beharra.
- Behar handiak daude herriko ekipamenduetan: hermanuetan, kiroldegian, ...
 - Kiroldegiari dagokionez, teilatuan itoginak daude. Horretaz gain, 17:00etatik 22:00etara erabiltzen da entrenamenduak egiteko (eskolako orduetatik kanpo egiten den kirolaz ari gara). Hau da, bost orduetan talde guztiak entrenatu behar dute, eta leku falta dago.
 - Proposatzen diren irtenbideak honakoak dira: San Frantzisko Eskola erabiltzea, Hermanuek erabiltzea, Frontoia, Plaza gorrixe (kanpoko lekuak)... Hala ere, leku hauetako batzuk egokitu egin beharko lirarteke hainbat kiroletera, bai talde-kiroletera eta baita banakakoetara (patinak, bizikleta...)
 - Hermanuei dagokionez, teilatua egoera oso txarrean dago, eta iada konpontzen hasiak dira. Horretaz gain, garbitasun falta ere arazo larria da gune honetan.
- Herri espazioak erabiltzearen garrantzia.
- Jose Done ikastetxearen egoera hobetu beharra.
- Eratzun berde bat sortzeko beharra kirola praktikatu ahal izateko: Aritzatxu inguruko zelaietan eta Errotan argiak behar dira. Ibilbide bat egin edo egokitzea proposatzen da Artiketik, bizikletan eta korrika ibiltzen direnentzat.

KIROLA ETA ESKOLA:

- Eskolarteko txapelketak antolatzen ziren lehen, orain ez.

- Multikirola ekintza egiten da, baina ez da gauza berbera. 10 urte arteko programa da, 3 ikastetxetan: futbola, eskubaloia, herri kirolak,... Asmoa omen dute gehiago ere egiteko.
- Multikirolaren filosofia aldatu behar da; ez da 'minikirolak' (hau da, pikoteoa). Honakoa ezaugarriak izan behar dituela proposatzen da:
 - Jolasak
 - Erritmo jolasak
 - Psikomotrizitatea, lateralitatea
 - Lankidetzeta-jolasak
 - Etab.
- Orain arte alor honetan egiten dena ez da nahiko ikusten.
- Harremana estutu beharra herriko ikastetxe eta kirol elkarteen artean.
- Harreman hau kirol elkarteez gain beste eragile batzuekin ere sakondu beharko litzateke (Udalarekin esaterako). Eskolekin harremana sendotzea oso garrantzitsua da umeak kiroletara animatzeko.
- Antolatzen diren programen adina zabaldu beharra dago, nagusiagoekin lantzen segitu behar da.
- Alor honetako profesionalek ikastaroak egin beharko lituzkete beraien prestakuntzari begira, eta horretarako Udalak kontrata ditzake prestakuntzarako monitorea-edo.

KIROLA ETA OSASUNA:

- 'Kirola = Osasuna' delako ideia zabaldu behar da.
- Kirola modu osasungarrian egitera animatu behar dira herritarrak.
- Elkarteei eta herritarrei orokorrean, kirola osasunaren ikuspegitik lantzeko aholkularitza eskaini beharko litzaioke. Aholkularitza hau Udaleko kirol-teknikariak egin dezake.
 - Adinaren araberako arazoak eta kirol gomendagarriak.
 - Gaixotasunen arabera gomendatzen edo egin beharko liratekeen kirolak.
 - Mobilidadearen araberako kirol egokituak eta hauen inguruko informazioa (urritasunak...).
 - Lehen sorospenak edo laguntzak.
 - Aholkularitza, oro har.

KIROL UDAL POLITIKA:

- Udala eta elkarteen arteko harremanak estutu beharra. Udalaren partetik interes falta sumatzen da. Talde barruko gestioan eta antolakuntzan gora beherak emoten dira.
- Kirola bultzatu nahi bada koordinazio bat eman behar da.
- Udalak elkarteekiko interesa adierazi behar du.
- Emakumeen kirol jarduna bultzatzeko estrategiak martxan jarri behar dira.
- Kirolean Euskaraz jarduteko politikak bultzatu behar ditu.
- Kirolari nabarien sari banaketa gehiago landu behar du Udalak.
- Kirolaren egoera hobetze aldera Udalak Kirol teknikari bat eduki beharko luke, herriko kirol guztiez (eta baita kirol taldeez) arduratuko litzatekeena. Hau da, kirolak kudeatuko lituzke, eta EZ instalazioak. Bere funtzioen artean egongo lirateke: (1) Ikastaroak antolatzea, bai ikastaro permanenteak, eta baita urtero beharrian formatiboen ebaluazio batetik abiatuaz urteko programa formatiboez arduratzea; eta (2) Herriko kirol jarduerak antolatzea.

KIROL ELKARTEAK:

- Elkarateak badagoz
- Elkarteen arteko komunikazio falta
- Elkarteen egoera orokorrean ona.
- Egoera ekonomikoari dagokionez, diru falta sumatzen da.
- Honen aurrean lehen erabiltzen ziren ereduak erabiltzen hasi dira berriro: materiala trukatu, utzi,... Material trukaketa kirol batzuetan egin daiteke baina beste batzuetan ez.
- Egoera ekonomiko desberdina dute profesionalek eta ez-profesionalek.
- Elkarateek egiten duten lan formatiboa oso handia da.
- Baliabide ekonomiko urrien aurrean alternatibak zeintzuk izan daitezkeen pentsatu beharko litzake.
- Udalari eskatzeko alternatiba hauek zeintzuk izan daitezkeen zerrendatu beharra: instalazioak uztea,...
- Elkarate batean parte hartzeak desgastea dakar bertan lanean dabilzanentzat.

- Jarduerak antolatzen dira elkarteen partetik baina jendearen erantzuna txikia izaten da (Adibidez mendi taldea).
- Nola egin herritarrak inplikatzen?
- Elkartien iraupena epe luzera zaila da, gora behera asko daude. Direktibak aldatzen direnean arrisku handia dago.
- Herriko kirolak plazaratu, herritarrek ikusi ahal izateko.
- Kirol elkarteek leku falta dute gauzak gordetzeko.

KIROL PROFESIONALA:

- Kirol erreferenteen beharra kirola herrian promozionatzeko: herriko profesionalak eskoletan zaletasuna zabaltzeko.
- Herrian dauden kirolari profesionalak ez dira ezagutzen, hauek ezagutzera eman behar dira.
- Neska kirolarien erreferente beharra.
- Euskaldun kirolarien erreferenteen beharra. Erreferente diren kirolariei euskararen aldeko jarrera eskatu.

KIROLA ETA EMAKUMEA:

- Udal berdintasun politikarik badago arlo honetan?
- Ez dago emakumeei zuzenduta jarduerarik.
- Kirol batzuk mistoak dira, bestetan neska hutsez osatzeko moduko taldeak egon ahal dira (futbol,...).
- Agian kirol batzuetan mutilak erakartzeko propaganda berezirik ez da egin behar, baina igual merezi du neskak gehiago animatzea, batez ere kirol estereotipatuetan parte hartzera animatzeko.
- Gaiaren inguruan hausnartu beharra, ez daukagu buruan eta ez dugu kontuan izaten.
- Herriko erreferentak erabiltzearen garrantzia azpimarratu da.

KIROLA ETA EUSKARA:

- Kirol munduan euskararen erabilera eskasa da.
- Monitoreei maila minimo bat exigitu eta gero beraiei lagundu kirol hiztegia lantzen. Inportantzia honi emna behar zaio, gure esku dagoelako.
- Euskara sailak kirol sailagaz plan bat edo hitzarmen bat du, puntu askogaz.
- Kirol elkarteei diru laguntzako gura badute euskara erabili behar dutew.
- Animo oihuak, euskarazkoak bultzatzea.
- Euskara/hizkera bentaja da kirol lehiaketetan, kontrarioak ez ulertzeko ze estrategia erabiltzen ari zaren. Balio ahal du euskara plus bat dela demostratzeko.
- Herriko erreferenteek publiko euskara ondo erabiltzea, eredugarria da.
- Athletic vs. Barca hizkuntza ereduak.
- Euskara teknikariaren ekarpena abenduak 14ko bileran: Kiroldegirako 3 urteko plana proposatu eta adostu da (Euskara saila-kirol patronatua). Ildo nagusiak:
 - o Hitzarmenetan hizkuntza irizpideak (monitoreak behar besteko gaitasuna lehentasuna).
 - o Erabiltzaileen ezagutza eta sentiberatasuna.
 - o Ikastaroetan hizkuntzen erabilerarako irizpideka (monitore eta erabiltzaileen ezagutzaren arabera).
 - o Monitoreen prestakuntzarako laguntza eta baliabideak.
 - o Kirol elkarteak: hitzarmenak (Gurien be bai), monitoreen prestakuntza, diru laguntzak eskuratzeko hizkuntza baldintza bete.
 - o Sentiberatasuna (Kalinpan panpina, kartelak, animo oihuak, txapak, potoak,..).
 - o 2009an diagnostikoa. Ondorengo lana.
 - o Elkarte nagusietan sakontzeko premia: entrenamendu eta jardueretarako hizkuntza, gizarte erantzukizuna, monitoreen prestakuntza (Koikili futbola adibidez).